



Arartekoaren 2013ko urriaren 31ko ebazpena. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari prestazioak ukatzeko ebazpen bat bertan behera uzteko, jarduera interesdunak agiriak aurkeztu zituen unera atzera eramateko eta dagozkion atzerakinak ordaintzeko gomendatzen da.

Aurrekariak

1. 2012ko irailaren 10ean erakundeak (...) igorritako kexa bat jaso zuen. Bertan kexagileak salatzen zuen Lanbide atzeratzen ari zela Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (aurrerantzean DBE) eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO) diru-laguntzen eskaera ebazteko orduan.

2. 2011ko azaroaren 17an Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak DBE prestazioa onartu zion kexagileari eta zegozkion atzerakinak ordaindu zizkion 75.947 Foru Aginduaren bidez.

2011ko abenduaren 12ko 80.965 Foru Aginduaren bidez, aldiz, foru-erakundeak prestazioa kautelaz bertan behera uztea erabaki zuen, interesdunak ez baitzuen eskatutako dokumentazioa aurkeztu (erroldako izen-ematea).

Kexagileak frogatu du agiri hori 2011ko abenduaren 27an aurkeztu zuela Lanbidek San Inazio kalean duen bulegoan (erregistro-zki.: 2011/27484), izan ere, garai hartan Bizkaiko Foru Aldundia dagoeneko ez zen mota horretako prestazioak emateko eskuduna.

2012ko urtarrilaren 5ean berriro aurkeztu zituen errolda-agiria eta berrakuratze-kontratua (Lanbideren erregistro-zki.: 2012/2219). Ondoren etxebizitza-aldaketari buruzko bestelako jakinarazpenak aurkeztu zituen 2012ko martxoaren 26an eta 2012ko ekainaren 6an (erregistro-zki.: 2012/54365 eta 2012/95462 hurrenez hurren), biak ere Lanbideren Sestaoko bulegoan.

Jakinarazi digunez ez omen zuen inolako erantzunik jaso.

3. Aipatutako aurrekariak egiaztatze aldera, 2012ko urriaren 5ean informazio-eskabidea igorri genuen Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera. Sailari





jakinarazi genion eskatutako dokumentazioa aspaldi aurkeztu bazuen ere interesdunak oraindik Lanbideren erantzunik jaso gabe jarraitzen zuela prestazioak jasotzeko eskubidearen inguruan.

4. 2012ko azaroaren 19an informazioa areagotzeko eskabidea igorri genion aipatutako Sailari, interesdunak jakinarazi baitzigun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinarazpen bat ageri zela bere izenean. Gogorarazi dezagun berak behar bezala jakinarazi zuela helbide aldaketa. EHAA jasotakoaren arabera, 15 eguneko epean zuen Lanbideko bulegora joan eta jakinarazpen bat jasotzeko. Baina dirudienez bulegora bertaratu zenean ez zioten inolako jakinarazpenik eman.
5. 2012ko azaroaren 28an Lanbideren erantzuna jaso genuen. Ez zituen eskarian jarri genituen zenbait puntu aipatzen, baina jakinarazten zigun irailaren 27an DBE ukatzeko ebazpena eman zutela interesdunak «*ez zuelako erroldatze-baldintza betetzen*». Gaineratzen zuen herritarra 2010eko ekainaren 7tik zegoela erroldatuta, eta beraz, ez zuela betetzen EAEn hiru urtez erroldatuta egon izanaren edo bost urtez lan-jarduera ordaindua eduki izanaren eskakizuna, eta 2011ko araudiaren arabera ezinbestekoa da baldintza horietako bat betetzea.
6. 2013ko otsailaren 26an beste informazio-eskari bat igorri genion Lanbideri, ez baitzigun aurreko eskakizunetan planteatutako zenbait konturen inguruko erantzunik igorri. Halaber, prestazioa ukatzeko emandako arrazoiak ikusita, aldez aurretiko zenbait gogoeta helarazi genizkion une batean indarrean dagoen araudi baten arabera interesdunak eskakizunak betetzen dituelako aitortzen den DBE laguntza bat hura baino murriztaileagoa den araudi berriago bat aplikatuta baliogabetzearen bidegabekeriaren inguruan.
7. 2013ko martxoaren 12an honako informazioa helarazi zigun Lanbidek:
 - Interesdunak 2012ko otsailaren 6an aurkeztu zuen eskabidea.
 - 2012ko uztailaren 17an hasi zen DBE aitortzeko prozedura.



- Dokumentazioa eskatzeko bi saiakera egin ziren etxebizitzara jakinarazpenak bidalita (ez du adierazten zein helbidetara), eta azkenik EHAAn argitaratu zen 2012ko irailaren 27an.
 - Interesdunak aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa (ez du eguna adierazten).
 - 2011ko araudiaren arabera, interesdunak ez zuen errolda-baldintza betetzen. Halaxe jasotzen da 2012ko irailaren 27ko ukatzeko ebazpen-proposamenean. 2012ko azaroaren 1eko ukatzeko behin betiko ebazpena azaroaren 26an jakinarazi zitzaion interesdunari.
8. Erantzun hori ikusita, apirilaren 11n berriro eskatu genion egoera argitzeko informazioa Lanbideri, modu informalean eskatu ere, eta jakinarazi ziguten Bizkaiko Foru Aldundiak baliogabetu zuela DBE 2012ko martxoan.
9. 2013ko apirilaren 18an informazio-eskabidea igorri genion Bizkaiko Foru Aldundiari. Bertan kasua planteatzen genuen eta gure ustetan foru-erakundeak baliogabetze hori agintzeko eskumenik ez duela aipatu genuen.
10. Maiatzaren 17an jaso genuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren erantzuna, eta bertan adierazitakoaren arabera, foru-erakundea bat zetorren gure gogoetekin. Jakinarazi zigutenez, DBE eskubidea bertan behera uzteari buruzko martxoaren 2ko 14981/2012 Foru Agindua Foru Administrazioak horretarako eskumenik ez zuen unean eman zen eta, beraz, beste espediente batzuetan egin izan duten moduan, agindua baliogabetu egin zuten eta interesdunaren eskubidea ebazpen hori eman aurreko egoerara itzultzeko, hau da, kautelazko etenaldira itzultzeko agindu zuen.

Modu informalean jakin genuen baliogabetze hori 2013ko maiatzaren 10eko 26.584 Foru Agindu bidez ebatzi zela eta herritarrari hilabete horretako 28. aldizkariaren bidez eman ziotela haren berri. Lanbideri, aldiz, data hori baino lehen jakinarazi omen zioten ebazpena.

Lanbidek erantzuna igorri zigun maiatzaren 28an. Bertan, aurretik igorritako erantzuneko edukiak berrestez gain, jakinarazi ziguten Bizkaiko Foru Aldundiak interesdunaren kasua iraungitako gisa helarazi ziola Lanbideri.



Horrenbestez, interesdunak 2012ko otsailaren 6an dokumentazioa aurkeztu izana eskabide berrizat hartzen omen dute eta horregatik aplikatzen omen diote 2011ko araudia.

11. Jakin berri dugu ekainean berriz ekin ziotela interesdunari diru-laguntzak emateari.

Gogoetak

1. Erakunde honen ustetan, interesdunak 2012ko otsailaren 6an dokumentazioa igorri izana (erregistro-zki.: 2012/19194) ez da eskabide berri bat, beraz, ez da bidezkoa Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legea indarrean sartu ondoren sortutako araudi-aldaketak aplikatzea.

2011ko abenduaren 13an indarrean sartu zenetik lege horrek Eusko Jaurlaritzaren esku uzten ditu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxeko Gastuetarako Prestazio Osagarria bezalako diru-laguntzak izapidetzeari eta ebazteari buruzko eskumenak. Legea indarrean sartu aurretik hasitako prozedurak ebazteko, aldiz, araubide iragankorra ezartzen dute haren lehenengo eta bigarren xedapen iragankorrek.

Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak berak bere erantzunean adierazitako legez, kexagilearen DBE eskubidea bertan behera uzten zuen martxoaren 2ko 14981/2012 Foru Agindua Foru Administrazioak horretarako eskumenik ez zuenean eman zen, beraz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1 b) artikularen arabera, Foru Agindu hori baliogabetu egin behar da eta interesdunaren eskubidea ebazpen hori eman aurretiko egoerara itzuli behar da, kautelazko etenaldira, hain zuzen. Zuzenketa hori 2013ko maiatzaren 10eko 26.584 Foru Agindu berriaren bidez artikulatu zen.

Horrenbestez, Lanbidek ezin du argudiatu espedientea iraungita helarazi ziotenik.





Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak egindakoaren ildora, Lanbidek ere akats hori konpondu beharko luke eta kautelazko etenaldira atzeratu beharko luke prozedura, herritarrak 2011ko abenduaren 27an aurkeztu zuen dokumentazioa onartu beharko luke foru-erakundeak egindako agindeia betetze aldera, eta bidezkoa izanez gero, prestazioaren ordainketa onartu beharko luke Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 26.3 eta 27 artikuluei jarraiki.

2. Gure ustetan, prestazioa jasotzeko eskubidearen titular izateko baldintzak betetzen diren baloratzeko orduan aplikatu beharreko araudia Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea izan beharko litzateke, baina aurreko bertsioan.

Frogatuta geratu da herritarrak 2011ko abenduaren 27an aurkeztu zuela eskatutako errolda-agiria.

Horrenbestez, betetzen zuen 2011ko abenduaren 13a baino lehen diru-laguntzak emateko eskatzen zen baldintza. Data horretan sartu zen indarrean Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legea. Kautelazko etenaldia eta dokumentazioaren eskaria ere data horren aurretik gertatutako egintza administratiboak izan ziren. Kexaren sustatzailea DBEren titularra zen nahiz eta hura etenda egon. Horrenbestez, esku artean duguna ez da DBE berritzeko edo berriz eskatzeko kasu bat, kautelaz etenda zegoen prestazio bat berriz emateko eskaria baizik.

Azaroaren 24ko 4/2011 Legearen lehen xedapen iragankorraren lehenengo paragrafoak argi eta garbi adierazten du zein den lege hori indarrean sartu aurretik hasitako prozedurei aplikatu beharreko araudia. Hauxe xedatzen du hitzez hitz: *“Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako prozedurek aurreko araudia izango dute jarraibide ondorio guztietarako.”*

Aurreko araudiaren 16.b) artikulua xedatzen zuenez, eskubidearen titularrak eskaera aurkeztu aurretik urtebetez egon behar zuen EAEn erroldatuta eta benetan bertan bizitzen, edo bestela, eskaria egin aurreko azken hamar urteetatik bost urtez jarraian.





Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak ezartzen duen bertsioan, aldiz, hiru urtera igotzen da alde aurretik eskatzen den erroldatze-epea.

Kexaren sustatzailea 2010eko ekainaren 7tik dago EAEn erroldatuta, beraz, betetzen zuen urtebetez erroldatuta egon izanaren betekizuna.

2013ko ekainean, hau da, hiru urtez erroldatuta egon ondoren eskubidea berriro aitortu diotenez eta Lanbidek bestelako baldintzaren bat bete ez izanagatiko alegaziorik jarri ez duenez, ondoriozta dezakegu kexagileak eskubidearen titular izateko gainerako baldintza guztiak betetzen zituela eskubidea bertan behera utzi ziotenean.

3. Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari dagokionean, aldiz, ez daukagu noiztik berrezarri beharko litzatekeen modu ukaezinean xedatu ahal izateko informazio nahikorik, baina argi dago kautelazko etenaldia abian zen unean baldintzak betetzen ote ziren hartu behar dela kontuan, eta kasu honetan ere une hartara atzera eraman beharko liratekeela jarduerak.
4. Hizpide dugun gaiaren funtsa bera alde batera utzita, frogatuta geratu da Administrazioak herritarraren eskabidea jaso zuen unetik (2012ko otsailaren 6a) DBE aitortzeko prozedura hasi zuen arte (2012ko uztailaren 17a) legeak mota horretako eskabideak ebazteko ezartzen duen bi hilabeteko epea baino denbora gehiago igaro zela, baina Lanbidek ez digu atzerakuntza horren zergatia azaldu.

Horrenbestez, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legearen 62.2 artikulua ezartzen dituen legezko betebeharrak gogorazi behar dizkiogu Administrazioari.

5. Lanbidek ez digu, ezta ere, interesdunak helbide-aldaketak jakinarazi ondoren aldizkarien bidez egindako jakinarazpenen inguruan gertatutako gorabeheren berri eman. Horrenbestez, ezin dugu kontu honen inguruko ebazpen ukaezinik eman. Hala ere, kasu honetan gertatutakoa eta helbide-aldaketa jakinarazi



arren arazo informatikoak direla eta jakinarazpenak aurreko helbidera igorri zaizkielako (bi jakinarazpen-saiakera egin ondoren aldizkarian argitaratu direlako) herritar askok eta askok helarazi dizkiguten kexak kontuan hartuta, ondorioztatu dezakegu Administrazioak baduela non hobetu, eta beraz, nabarmendu behar dugu ezinbestekoa dela helbide-aldaketak organo guztietan jasota utzi ahal izateko neurriak hartzea.

Horrenbestez, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan agindutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

GOMENDIOA

1. Baliorik gabe utzi dadila herritarrari Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko eskubidea ukatzen dion 2012ko azaroaren 1eko Ebazpena, interesdunak eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen unera atzera eraman dadila jarduera (2011ko abenduaren 27ra), prestazioa berriro emateari ekin dakiola ondoretarako data moduan abenduaren 12a hartuta, egun horretantxe baliogabetu baitzen kautelazko etenaldia, eta abendutik 2013ko maiatzera bitarteko epealdiari dagozkion atzerakinak ordaindu dakizkiola interesdunari.
2. Kautelazko etenaldia indarrean zenean herritarrak Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzko dokumentazioa aurkezteko agindeiari noiz erantzun zion zehaztu ondoren, jarduerak une hartara atzera eraman daitezela eta, aurreko araudiak ezarritako baldintzak betez gero, sortutako atzerakinak ordain dakizkiola interesdunari.